

# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

---

IX. legegintzaldia

Iruña, 2017ko urtarrilaren 5a

4. ZK.

---

### A U R K I B I D E A

G SAILA:

**Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

—Barañaingo Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

## **Barañaingo Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2016ko azaroaren 28an eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Barañaingo Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 205. artikuluan ezarritakoarekin bat, hona hau ERABAKI DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2016ko azaroaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Barañaingo Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko fiskalizazio txostena, Kontuen Ganberak egina**

### **AURKIBIDEA**

- |  |  |
|--|--|
| <p>I. Sarrera (4. or.).</p> <p>II. 2015eko kontu orokorrari buruzko iritzia (7. or.).</p> <p>    II.1. Auditoria finantzarioko iritzia (8. or.).</p> <p>    II.2. Legezketasuna betetzeari buruzko iritzia (8. or.).</p> <p>III. Udalaren 2015eko kontu orokorraren laburpena (9. or.).</p> <p>    III.1. 2015eko ekitaldiko aurrekontu bateratua-ren likidazioaren egoera-orria (doikuntzekin) (9. or.).</p> <p>    III.2. 2015eko ekitaldiko aurrekontu bateratua-ren emaitza (doikuntzekin) (9. or.).</p> | <p>    III.3. Diruzaintza-gerakinaren egoera-orri bateratua 2015eko abenduaren 31n (doikuntzekin) (10. or.).</p> <p>    III.4. 2015eko abenduaren 31ko egoera-balantze bateratua (10. or.).</p> <p>    III.5. Galeren eta irabazien kontu bateratua 2015eko abenduaren 31n (11. or.).</p> <p>IV. Oharpenak, iritzian eraginik ez dutenak, eta gomendioak (12. or.).</p> <p>    IV.1. Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioa 2015eko abenduaren 31n (12. or.).</p> <p>    IV.2. Aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea. (15. or.).</p> <p>    IV.3. Aurreko txostenetan Kontuen Ganberak emandako gomendioen betetze-maila. (15. or.).</p> <p>    IV.4. Alderdi orokorrak (16. or.).</p> <p>    IV.5. Langileak (17. or.).</p> <p>    IV.6. Ondasun arruntetako eta zerbitzuetako gastuak (19. or.).</p> <p>    IV.7. Transferentzien ondoriozko gastuak (20. or.).</p> <p>    IV.8. Inbertsioak (21. or.).</p> <p>    IV.9. Aurrekontuko diru-sarrerak (22. or.).</p> <p>    IV.10. Hirigintza (23. or.).</p> <p>    VI.11. Barañain Auditorioa Fundazioa (24. or.).</p> <p>I. eranskina. Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuak.</p> <p>II. eranskina. 2015eko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorraren memoria.</p> <p>(Oharra: Aipatutako eranskinak foru parlamentarien esku daude Agora aplikazioan eta honako web helbidean:<br/><a href="http://www.cfn Navarra.es/camara.comptos">www.cfn Navarra.es/camara.comptos</a>).</p> |
|--|--|



## I. SARRERA

Kontuen Ganberak, bera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legeari eta 2016rako jarduketa-programari jarraituz, Barañaingo Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorrak fiskalizatu ditu. Honako hauek osatuta daude kontu horiek: aurrekontuko likidazioaren egoera-orria, balantzea, emaitza ekonomiko eta ondarezkoen kontua eta data horretan amaitutako ekitaldiari dagokion oroitidazki ekonomikoa.


Kontu orokorren finantza-auditoriarekin batera, legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren plangintza egin eta bete dugu, honako honi buruzko iritzi bat eman ahal izateko: ea Udalak ekitaldian zehar egindako jarduerak eta aurrekontu- eta finantza-eragiketak eta 2015eko ekitaldiko urteko kontuetan jasotako informazioa bat ote datozen, alderdi esanguratsu guztietan, funts publikoen kudeaketari aplikatzekoak zaizkion arauekin.

Barañaingo Udalari 2015eko ekitaldian aplikatzekoa zaion arau-esparruak, funtsean, honako hauek osatuta dago: Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legea, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legea, bai eta sektorekako araudi indarduna eta aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren arloko araudia ere.

Barañaingo udalerriak 1,4 km<sup>2</sup>-ko azalera du, eta 20.475 biztanle dauzka 2015eko urtarrilaren 1ean.

Tokiko zerbitzu publikoak emateari begira, Udalak kudeaketa-lanetarako bi erakunde autonomo sortuak ditu.

Udalaren eta haren mendeko erakundeen osaera honako irudi honetan ikusten da:



2015eko ekitaldia ixtean, erakunde horien funtsezko datu ekonomikoak honako hauek ziren:

Entitatea	Aitortutako bete-beharrak	Aitortutako esku-bideak	Langileak, 2015-12-31n
Udala	11.881.666	13.418.397	121
"Lagunak" Udalaren Kirol Zerbitzua	1.820.859	1.906.685	15
"Luis Morondo" Musika Eskola	873.318	866.495	19
Bateratzearen doitzak	-376.000	-376.000	-
<b>Guztira</b>	<b>14.199.843</b>	<b>15.815.577</b>	<b>155</b>

Udalak bere erakunde autonomoentzat 2015ean egin dituen ekarpena hau izan da:

Entitatea	Ekarpena
"Lagunak" Udalaren Kirol Zerbitzua	20.000
"Luis Morondo" Musika Eskola	356.000
<b>Guztira</b>	<b>376.000</b>

Udala, gainera, Iruñerriko Mankomunitatean sarturik dago, eta haren bidez ematen ditu uraren ziklo integralaren zerbitzuak, hiri-hondakin solidoen kudeaketa- eta tratamendu-zerbitzuak, eskualdeko hiri-garraioak eta ibai-parkearen kudeaketak.

Mankomunitatean dituen zerbitzu hauek guztiek ondoko taulan adierazten diren gastuak eragin dizkiote Udalari:

Zerbitzuak	Udalarentzako gastuak 2015ean
Eskualdeko hiri-garraioa	279.628
Ibai parkea	60.640
<b>Guztira</b>	<b>340.268</b>

Hurrengo taulan laburbilduta ageri dira ematen dituen zerbitzu publiko nagusiak eta haiek emateko modua:

Zerbitzua	Udala	ERAKUNDE AUTONO- MOAK	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Zerbitzu administratibo orokorrak	x			
Musika Eskola		x		
Hirigintza	x			
Uraren ziklo integrala			x	
Hiri hondakinak			x	
Hiri-garraioa			x	
Bideak garbitzea				x
Parkeak eta lorategiak	x			
Udal kiroldegia	x			x
Atletismo-pistak	x			x
Zerbitzua	Udala	ERAKUNDE AUTONO- MOAK	Mankomunitatea	Zerbitzu kontratuak
Retegi Pilotalekua		x		
Kirol jardueren kudeaketa	x	x		x
Liburutegia	x			
Ludoteka	x			x
Etxeko arreta	x			x
Gizarte enplegu babestua	x			
Kultur etxea	x			
Hezkuntza	x			
Euskara	x			
Berdintasuna				x
Gazteria	x			x
Herritarrentzako Arreta Bulegoa	x			
Errolda	x			
Herritarren parte-hartzea	x			
Lan-mundura sartzeko Bulegoa	x			x
Immigrazio Zerbitzua	x			x
Telezentroa	x			
Mentor Ikasgela	x			
Diru-bilketa	x			
Diru-bilketa exekutiboa	x			x

Entitatearen aurrekontu orokorrari 2014ko abenduaren 29ko Osoko Bilkurak eman zion behin-behineko onespena; behin betiko onespena, berriz, 2015eko otsailaren 3an eman zitzaion. Halaber, Osoko Bilkura horrek berak betetze-oinarriak onetsi zituen.

Txostena lau ataletan dago banatuta, sarrera hau barne. Bigarren atalean, Udalaren 2015eko kontu orokorrari buruz daukagun iritzia ematen dugu, eta hirugarrenean Udalaren egoera-orri garrantzitsuenen laburpena jaso dugu. Azkenik, laugarrenean, gure iritzian eraginik ez duten alderdiei buruzko oharra jaso ditugu (Udalaren egoera ekonomiko eta finantzarioa, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzea eta alderdi orokorrak), bai eta Udalaren antolaketa eta barne-kontrola hobetzeko egokitzat jotzen ditugun arlokako iruzkin, ondorio eta gomendioak ere.

Horiez gainera, bi eranskin daude:

- Batak Barañain Auditorioa Fundazioaren kontuak ditu, zeinak Udalaren kontu orokorrean sartzen ez badira ere, txosten honen eranskin gisa jarri baititugu.
- Besteak 2015eko ekitaldiko kontuei buruz Udalak eginiko oroitidazkia biltzen du.

Barañaingo Udaleko eta haren menpeko erakunde autonomoetako langileei eskerrak ematen dizkiegu lan hau egiteko eman diguten laguntzarengatik.

## II. 2015eko KONTU OROKORRARI BURUZKO IRITZIA

Barañaingo Udalaren 2015eko ekitaldiko kontu orokorra fiskalizatu dugu. Haien kontabilitatearen egoera-orriak laburbilduta jaso ditugu txosten honetako hirugarren atalean.

### *Udalaren erantzukizuna*

Kontu-hartzailletza da kontu orokorra osatzeko ardura duena. Kontuak halako moduz egin behar ditu non leialki irudikatuko baitituzte Udalaren aurrekontu-likidazioa, ondarea, emaitzak eta finantza-egoera, aplikatzekoa den finantza-informazio publikoari buruzko arau-esparruarekin bat; erantzukizun horrek hartzen ditu iruzurraren edo akatsen ondoriozko ez-betetze materialetatik libre dauden kontu orokorrak egin eta aurkezteko beharrezkoa den barne kontrolaren kontzepzioa, ezarpena eta mantentzea.

2016ko maiatzaren 30eko Osoko Bilkurak 2015eko kontuak onetsi zituen.

Udalak, urteko kontuak egiteko eta aurkezteko erantzukizunaz gainera, bermatu beharko du urteko kontuetan islatutako jarduerak, aurrekontu- nahiz finantza-eragiketak eta informazioa bat datozela aplikatzekoa den araudiarekin, eta xede horretarako beharrezkoak diren barne kontrolako sistemak ezarri beharko ditu.

### *Nafarroako Kontuen Ganberaren erantzukizuna*

Gure erantzukizuna da iritzi bat adieraztea erantsitako kontu orokorren fidagarritasunari buruz eta gure fiskalizazioan oinarrituta egin diren eragiketen legezkotasunari buruz.

Horretarako, erantzukizun hori bete dugu Kanpo Kontrolako Erakunde publikoen fiskalizaziorako oinarritzko printzipioen arabera. Printzipio horiek eskatzen dute etikaren arloko eskakizunak bete ditzagula, bai eta fiskalizazioaren plangintza eta exekuzioa egin dezagula ere, honako helburu honekin: kontu orokorretan arrazoizko segurtasun bat lortzea eta haietan akats materialik ez egotea; eta finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa, alderdi adierazgarri guztietan, arau indardunen arabera izatea.

Fiskalizazio honek eskatzen du prozedura batzuk aplika ditzagula auditoria-ebidentzia bat lortzeko zenbatekoei eta kontu orokorretan adierazitako informazioari buruz, bai eta eragiketen legezkotasunari buruz ere. Hautatutako prozedurak auditorearen irizpidearen arabera dira, horren barne dela kontu orokorren akats materialei buruzko arriskuen balorazioa, akats hori iruzurraren nahiz akatsaren ondoriozkoa denean eta legezkotasunaren ez-betetze aipagarrien ondoriozkoa denean ere. Arriskuari buruzko balorazio horiek egiterakoan, auditoreak barne kontrola hartzen du kontuan —entitateak kontu orokorrak egin ditzan garrantzitsua baita— inguruabarren arabera auditoria prozedura egokiak diseinatze aldera, eta ez entitatearen barne kontrolaren eraginkortasunari buruzko iritzia emateko xedez. Auditoria batek barne biltzen du, era berean, aplikatutako kontabilitate-politiken egokitasuna eta arduradunek egindako kontabilitate-estimazioen arrazoizkotasuna, bai eta kontu orokorren aurkezpena ere, oro har.

Gure ustez lortu dugun auditoria-ebidentziak behar adinako oinarria eta oinarri egokia jasotzen du gure fiskalizazio-iritzia emateko.

Finantzen eta legezkotasunaren betetzeari buruzko fiskalizazioaren emaitzatik honako iritzia eratortzen da, salbuespen bat ere baduena.

## II.1. AUDITORIA FINANTZARIOKO IRITZIA

### *Iritziaren oinarria, salbuespen batekin*

Oraindik ere ez da amaitu 1992ko inbentarioaren gaurkotze- eta onespen-prozesua.

### *Iritzia*

Gure iritzian, "Iritziaren oinarria, salbuespen batekin" lerrokadan azaldutako egitateen eraginengatik ez bada, erantsitako kontu orokorrek irudi leiala erakusten dute alderdi esanguratsu guztietan, ondareari, gastuen eta diru-sarreraren aurrekontuaren likidazioari eta Udalaren 2015eko abenduaren 31ko finantza-egoerari dagokienez, bai eta data horretan amaitutako urteko ekitaldiko emaitza ekonomiko eta aurrekontukoei dagokienez ere, betiere aplikatzekoa den informazio finantzario publikoari buruzko lege-esparruari eta, bereziki, bertan jasotako kontabilitateko printzipio eta irizpideei jarraituz.

## II.2. LEGEZKOTASUNA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

Gure iritziz, Udalaren 2015eko ekitaldiari buruzko finantzen egoera-orrietan islatutako jarduketak, finantza-eragiketak eta informazioa bat datoz, alderdi adierazgarri guztietan, aplikatzekoak diren arauekin.



**III. UDALAREN 2015eko KONTU OROKORRAREN LABURPENA**

Ondoren 2015eko ekitaldiko egoera-orri bateratu garrantzitsuenak jasotzen dira (Udala eta erakunde autonomoak)

**III.1. 2015eko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN LIKIDAZIOAREN EGOERA-ORRIA (DOIKUNTZEKIN)**

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako eskubideak	Kobrantzak	Kobratzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutakoaren gainean (%)
1. Zuzeneko zergak	3.853.000	0	3.853.000	4.487.450	4.259.795	227.656	116	28
2. Zeharkako zergak	303.440	0	303.440	169.962	165.526	4.436	56	1
3. Tasak eta bestelako diru-sarrerak	3.574.100	0	3.574.100	3.508.461	3.355.925	152.535	98	22
4. Transferentzia arruntak	6.757.800	43.000	6.800.800	6.806.515	6.554.764	251.751	100	43
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	181.500	0	181.500	172.345	168.534	3.811	95	1
6. Inbertsio errealak besterentzea	661.000	0	661.000	660.069	0	660.069	100	5
7. Kapital-transferentziak	10.000	0	10.000	10.775	10.775	0	108	0
8. Finantza-aktiboak	0	1.193.925	1.193.925	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboan aldea	0	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>15.340.840</b>	<b>1.236.925</b>	<b>16.577.765</b>	<b>15.815.577</b>	<b>14.515.319</b>	<b>1.300.258</b>	<b>95</b>	<b>100</b>

Deskribapena	Hasierako aurreikuspena	Aldak.	Behin betiko aurreikuspena	Aitortutako betebeharrak	Ordainketak	Ordaintzeko dagoena	Betetakoa (%)	Aitortutakoaren gainean (%)
1. Langile-gastuak	7.570.280	151.925	7.722.205	7.194.925	7.012.674	182.251	93	51
2. Ondasun arrunten eta zerbitzuen gastuak	5.604.810	-13.300	5.591.510	4.957.594	4.467.352	490.242	89	35
3. Gastu finantzarioak	11.100	0,00	11.100	2.082	2.082	0	19	0
4. Transferentzia arruntak	973.900	52.800	1.026.700	917.292	768.917	148.375	89	6
6. Inbertsio errealak	878.000	1.008.500	1.886.500	789.996	497.671	292.325	42	6
7. Kapital-transferentziak	20.000	37.000	57.000	55.204	40.204	15.000	97	0
8. Finantza-aktiboak	0,00	0,00	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	282.750	0,00	282.750	282.750	282.750	0	100	2
<b>Guztira</b>	<b>15.340.840</b>	<b>1.236.925</b>	<b>16.577.765</b>	<b>14.199.843</b>	<b>13.071.650</b>	<b>1.128.193</b>	<b>86</b>	<b>100</b>

Udalaren oroitidazkian akats txiki bat dago, garrantzi gutxikoa, transferentzia arrunten kapituluko ordainketetan. Zenbateko zuzenak txosten honetan jasotakoak dira.

**III.2. 2015eko EKITALDIKO AURREKONTU BATERATUAREN EMAITZA (DOIKUNTZEKIN)**

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
+Aitortutako eskubide garbiak	15.815.577	18.452.397
-Aitortutako betebeharrak garbiak	14.199.843	15.123.908
=Aurrekontu-emaizta	1.615.734	3.328.489
<b>Doikuntzak</b>		
- Finantzaketaren desbideratze positiboak	0	0
+ Finantzaketaren desbideraketa negatiboak	0	0
+ Diruzaintzako gerakinarekin finantzaturiko gastuak	246.405	131.547
<b>= Aurrekontu-emaizta doituak</b>	<b>1.862.139</b>	<b>3.460.036</b>

### III.3. DIRUZAINZA-GERAKINAREN EGOERA-ORRI BATERATUA 2015eko ABENDUAREN 31n (DOIKUNTZEKIN)

Kontzeptua	2015eko ekitaldia	2014ko ekitaldia
+ Kobratzeko dauden eskubideak	1.401.326	639.433
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.300.258	523.652
+ Diru-sarreraren aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	861.302	802.201
+ Aurrekontuz kanpoko diru-sarrerak:	35.062	44.784
+ Ordainketen itzulketak		
- Bilketa zaileko eskubideak	-795.313	-731.137
- Aplikatzeko dauden diru-sarrerak	16	-67
- Ordaintzeko dauden betebeharrak	1.606.318	1.937.496
+ Gastuen aurrekontua: Aurtengo ekitaldia	1.128.193	1.503.998
+ Gastuen aurrekontua: Itxitako ekitaldiak	24.191	17.718
+ Diru-sarreraren itzulketak	0	0
+ Aurrekontuz kanpoko gastuak	453.995	415.840
- Aplikatzeko dauden gastuak	-60	-60
+ Diruzaintzako funts likidoak	6.656.629	6.216.040
+ Finantzaketaren desbideratze metatu negatiboak	0	0
Diruzaintza-gerakina, guztira	6.451.637	4.917.978
Diruzaintza-gerakina, finantzaketa atxikia duten gastuak direla-eta	150.390	302.115
Baliabide atxikiaren diruzaintza-gerakina	0	0
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	6.301.246	4.615.863

### III.4. 2015eko ABENDUAREN 31ko EGOERA-BALANTZE BATERATUA

Aktiboa		Pasiboa	
Deskribapena	Aurreko urteko zenbaiten Itxiera	Deskribapena	Aurreko urteko zenbaiten Itxiera
<b>Ibilgetua</b>		<b>Funts berekiak</b>	
Ibilgetu materiala	25.238.943	Ondarea eta erreserbak	25.072.175
Ibilgetu ez-materiala	430.505	Ekitaldiko emaitza ekonomikoa (etekina)	2.001.396
Erabilera orokorrerako azpiegiturak eta ondasunak	10.396.097	Kapitaleko diru-laguntzak	14.880.164
Herri-ondasunak	0	<b>Arrisku eta gastuetarako hornidurak</b>	
Finantza-ibilgetua	0	Hornidurak	0
<b>Zenbait ekitalditan banatu beharreko gastuak</b>		<b>Epe luzeko hartzekodunak</b>	
Kitatu beharreko gastuak	0	Jesapenak, maileguak eta jasotako fidantzak eta gordailuak	1.358.759
<b>Zirkulatuzailea</b>		<b>Epe laburreko hartzekodunak</b>	
Izakinak	0	Itxitako aurrekontuetako hartzekodunak eta aurrekontuez kanpokoak	1.606.379
Zordunak	2.196.623	Aplikatzeko dauden kontu-sailak eta aldizkatzearen ondoriozko doitzeak	0
Finantza-kontuak	6.656.705		
Finantzaketaren egoera iragankorrak, aldizkatzeak eragindako doitzeak	0		
Aplikatzeko dagoen emaitza (ekitaldiko galera)	0		
<b>Aktiboa, guztira</b>	<b>44.918.873</b>	<b>Pasiboa, guztira</b>	<b>44.918.873</b>

## III.5. GALEREN ETA IRABAZIEN KONTU BATERATUA 2015eko ABENDUAREN 31n

## Ekitaldiko emaitza arruntak

Deskribapena	2015	2014	Deskribapena	2015	2014
3 Hasierako izakinak	-		3 Bukaerako izakinak	-	-
39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntzak (ekitaldiko hornikuntza)	-		39 Izakinen prezioaren beherapenaren ondoriozko hornikuntza (aurreko ekitaldiko hornikuntza)	-	-
60 Erosketak	0		70 Salmentak	2.793.859	2.726.121
61 Langile-gastuak	7.194.252	7.130.085	71 Ondasunaren eta enpresaren errenta	767.081	4.719.037
62 Finantza-gastuak	2.083	9.511	72 Produkzioari eta inportazioari lotutako tributuak	2.787.238	2.713.603
63 Tributuak	-		73 Errentaren eta ondarearen gaineko zerga arruntak	1.056.292	1.014.473
64 Lanak, hornidurak eta kanpo zerbitzuak	5.058.626	5.140.716	75 Ustiapenerako dirulaguntzak	0	0
65 Gizarte prestazioak	7.701	7.582	76 Transferentzia arruntak	7.182.515	6.785.403
66 Ustiapenerako dirulaguntzak	0		77 Kapitalaren gaineko zergak	813.884	351.382
67 Transferentzia arruntak	1.189.292	845.557	78 Bestelako dirusarrerak	119.865	131.603
68 Kapital-transferentziak	55.204	12.000	79 Beren helbururako aplikatutako hornikuntzak	0	0
69 Amortizazioetarako eta horniduretarako hornidura, ekitaldikoa	0			0	0
	0			0	0
800 Ekitaldiko emaitza arrunta (saldo hartzekoduna)	2.013.576	5.296.171	800 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	0	0
<b>Guztira</b>	<b>15.520.734</b>	<b>18.441.622</b>	<b>Guztira</b>	<b>15.520.734</b>	<b>18.441.622</b>

## Ekitaldiko emaitzak

Zor			Hartzeko		
Deskribapena	2015	2014	Deskribapena	2015	2014
80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	-		80 Ekitaldiko emaitza arruntak (saldo zorduna)	2.013.576	5.296.171
82 Ezohiko emaitzak (saldo zorduna)	-		82 Ezohiko emaitzak (saldo hartzekoduna)	105	237
83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo zorduna)	-		83 Balore-zorroaren emaitzak (saldo hartzekoduna)	0	0
84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	12.286	28.469	84 Itxitako aurrekontuetako eskubide eta betebeharren aldaketa	0	4.741
89 Etekin garbia guztira (Saldo hartzekoduna)	2.001.396	5.272.680	89 Galera garbia, guztira (saldo zorduna)		
<b>Guztira</b>	<b>2.013.681</b>	<b>5.301.149</b>	<b>Guztira</b>	<b>2.013.681</b>	<b>5.301.149</b>

#### IV. OHARPENAK, IRITZIAN ERAGINIK EZ DUTENAK, ETA GOMENDIOAK

Ondoren, azterketa labur bat egiten dugu Udalaren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz, aurrekontu-egonkortasunaren eta finantza-iraunkortasunaren helburuak betetzeari buruz eta aurreko ekitaldietako gomendioen jarraipenari buruz; gainera, kudeaketa-arlo garrantzitsu bakoitzari buruzko iruzkin nagusiak eta, Ganberaren iritziz, Udalak aintzat hartu beharko lituzkeen gomendio nagusiak ere azterzen dira, bere antolamendu-sistemak, prozedurak, kontabilitatea eta barne-kontrola hobetze aldera.

##### IV.1. UDALAREN EGOERA EKONOMIKO-FINANTZARIOA 2015eko ABENDUAREN 31n

Udalaren hasierako aurrekontu bateratuak 15.340.840 euroko gastu eta diru-sarrerak dauzka; zenbateko hori ehuneko 8 —hau da, 1.236.925 euro— handitu da aurrekontu-aldaketen bitartez: Horrenbestez, behin betiko aurreikuspenak 16.577.765 eurokoak dira. Aldaketa horiek eragina dute batez ere finantza-aktiboen kapituluan (diru-sarrerak) eta inbertsioen kapituluan (gastuak).

Aitortutako betebeharrak 14.199.843 eurokoak izan dira eta ehuneko 86ko betetze-maila izan dute. Maila hori justifikatzen da bereziki erosketen eta inbertsioen kapituluan egindako gastu txikiagoengatik.

Aitortutako eskubideak 15.815.577 eurokoak dira, ehuneko 95eko betetze-mailarekin; halere, portzentaje hori ehuneko 100etik gorakoa da, finantza-aktiboen bidezko diru-sarrerak kontuan hartzen ez badira.

Beren izaerari erreparatuta, ia gastu eta diru-sarrera guztiak arruntak dira.

Taula honetan adierazten da zertarako erabili eta nola finantzatu diren Udalak gastatutako 100 eurotik bakoitza:

Gastuaren izaera	Zenbatekoa	Finantza iturria	Zenbatekoa
Langileak	51	Tributu bidezko diru-sarrerak	52
Bestelako gastu arruntak	41	Transferentziak	43
Inbertsioak	6	Ondare bidezko diru-sarrerak/inbertsio errealen besterentzea	5
Finantza-zama	2		
<b>Guztira</b>	<b>100</b>	<b>Guztira</b>	<b>100</b>

Hona Udalaren 2015erako aurrekontuaren betetzeari buruzko datu ekonomikoak eta 2014koarekiko alderaketa:

Adierazleak	2015	2014	2015-2014 aldea (%)
Aitortutako betebeharrak, guztira	14.199.843	15.123.908	-6
Aitortutako eskubideak, guztira	15.815.577	18.452.397	-14
Gastuen betetzea (%)	86	91	
Diru-sarreraren betetzea (%)	95	111	
Ordainketak (%)	92	90	
Kobratutakoa (%)	92	97	
Gastu arruntak (1. kapitulutik 4.era)	13.071.893	13.128.492	
Funtzionamendu-gastuak (1., 2. eta 4. kapituluak)	13.069.811	13.118.982	
Kapital-gastuak (6. eta 7. kapituluak)	845.200	1.712.666	-51
Finantza-eragiketengatikoko gastuak (8. eta 9. kapituluak)	282.750	282.750	0
Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)	15.144.734	18.441.622	-18
Tributu bidezko diru-sarrerak (1. kapitulutik 3.era)	8.165.874	7.492.944	9
Kapital bidezko diru-sarrerak (6. eta 7. kapituluak)	670.843	10.775	6126
Diru-laguntzen menpekotasunak (%)	43	37	
Tributu bidezko diru-sarrerak / gastu arruntak (%)	62	57	
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	1.898.484	3.611.239	-47
Aurrekontu-emaizta doituia	1.862.139	3.460.036	-46
Aurrezki gordina	2.074.923	5.322.641	-61
Finantza-zama (3. eta 9. kapituluak)	284.833	292.261	-3
Aurrezki garbia	1.790.090	5.030.380	-64
Zorpetze-maila (%)	2	2	
Zorpetze-muga (%)	14	29	
Zorpetze-ahalmena (%)	12	27	
Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina	6.301.246	4.615.863	37
Udalaren zor bizia	1.359.250	1.642.000	-17
Zor bizia biztanleko	66	80	-17
Diru-sarrera arrunten gaineko zor bizia (%)	9	9	
Aurrezki gordinaren gaineko zor bizia	66	31	

2015ean, Udalak ehuneko 6 gutxiago gastatu du; diru-sarrerak, berriz, aurreko ekitaldikoak baino ehuneko 14 txikiagoak izan ditu.

Gastu arruntak aurreko urteko maila bertsuan mantentzen dira; eta diru-sarrera arruntek, al-diz, ehuneko 18 egin dute behera. Tributu izaerako diru-sarrerak ehuneko 9 igo dira.

Aurrekontu saldo ez-finantzarioak 1.898.484 euro egiten du.

Aurrekontu-emaizta doituia 1.862.139 eurokoa da.

2015ean, aurrezki gordinak balio positiboa du, 2.074.923 eurokoa, eta aurrezki garbiak, berriz, 1.790.090 eurokoa.

Zorpetze-maila ehuneko 1,88koa da, eta ehuneko 13,70eko muga du; horregatik, hain zuzen, oraindik ere badu zorpetze berria hartzeko ahalmen ekonomikoa.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 6.301.246 eurokoa da, eta ehuneko 37 egin du gora 2014koarekin alderatuta.

Epe luzeko zorra 1.359.250 eurokoa da, eta ehuneko 17 egin du behera 2014koarekin alderatuta; zor hori —biztanle bakoitzeko 66 eurokoa dena, guztira— entitatearen diru-sarrera arrunten guztizkoaren ehuneko 9 da. Bada, ehuneko hori gaur egun zorpetze berria hartzea mugatzen duen diru-sarrera arrunten ehuneko 110eko lege-mugaren azpitik dago.

Barañaingo Udalak 2006-2015 aldian honako bilakaera izan du diru-sarreretan eta gastuetan:

Diru-sarrerak (aitortutako eskubide garbiak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1. Zuzeneko zergak	3.249.519	3.301.911	3.225.247	3.346.224	3.539.260	3.492.873	3.577.126	3.663.974	3.843.671	4.487.451
2. Zeharkako zergak	232.696	305.968	76.303	142.136	198.578	130.577	141.971	80.203	235.787	169.962
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.082.334	3.387.153	3.373.876	3.429.389	3.453.341	3.481.445	3.513.450	3.396.016	3.413.486	3.508.461
4. Transferentzia arruntak	7.633.787	7.151.757	7.725.094	7.759.409	7.538.824	7.216.466	7.267.687	6.874.959	6.785.403	6.806.515
5. Ondare bidezko eta herri-lurren aprobetxamenduko diru-sarrerak	82.140	60.326	51.689	29.627	36.899	33.032	56.450	90.688	4.163.275	172.345
6. Inbertsio errealak beste-erentzea	1.529.629	24.897	498.547	327.888	0	0	62.900	0	0	660.069
7. Kapital-transferentziak	469.234	1.132.511	852.393	3.961.185	0	0	155.342	-7.623	10.775	10.775
8. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
9. Finantza-pasiboak	0	0	1.533.000	0	0	0	0	0	0	0
<b>Guztira</b>	<b>16.279.339</b>	<b>15.364.524</b>	<b>17.336.149</b>	<b>18.995.858</b>	<b>14.766.902</b>	<b>14.354.392</b>	<b>14.774.926</b>	<b>14.098.217</b>	<b>18.452.397</b>	<b>15.815.577</b>

Gastuak (aitortutako betebeharrak)

Izena	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015
1. Langile-gastuak	6.909.283	7.283.305	7.756.301	8.224.268	7.784.803	7.451.115	6.950.946	7.105.216	7.128.293	7.194.925
2. Ondasun arruntan eta zerbitzuen gastuak	4.735.213	5.092.368	5.372.384	5.174.092	5.197.843	5.293.515	5.307.327	5.172.049	5.045.132	4.957.594
3. Finantza-gastuak	62.118	72.209	129.135	92.757	32.883	31.190	27.914	33.370	9.511	2.083
4. Transferentzia arruntak	988.986	1.163.303	1.178.424	937.105	829.681	774.619	847.694	882.786	945.557	917.292
5. Inbertsio errealak	1.556.566	2.153.746	2.472.686	4.501.482	2.880.496	227.700	287.818	438.990	1.700.666	789.996
6. Kapital-transferentziak	308.000	179.613	125.420	18.063	0	0	0	11.842	12.000	55.204
7. Finantza-aktiboak	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
8. Finantza-pasiboak	180.550	180.550	180.550	282.750	282.750	282.750	282.750	282.750	282.750	282.750
<b>Guztira</b>	<b>14.740.715</b>	<b>16.125.095</b>	<b>17.214.900</b>	<b>19.230.518</b>	<b>17.008.456</b>	<b>14.060.889</b>	<b>13.704.449</b>	<b>13.927.003</b>	<b>15.123.908</b>	<b>14.199.843</b>

Taulako datuetatik ondorioztatzen denez, 2009ra arte gastuek eta diru-sarrerak gora egin zuten, eta gero 2011ra arte behera egin dute; urte horretatik aurrera, berriz, eutsi egin zaie. 2014an, diru-sarrerak nabarmen handitu dira, batez ere diru-sarreretan, merkataritza-zentro bat ezartzearekin lotutako eragiketa bereziaren ondorioz. 2015ean, gastuen eta diru-sarreraren bolumenak 2006koak baino txikiagoak dira

Zor bizia 3,3 milioitik 1,4 miliora jaitsi da 2015ean.

Udalak aurrera eraman duen jardueraren bilakaera honako adierazle hauen alderaketatik ondorioztatzen da (ikus oroitidazkia) 2011tik 2015era.

Adierazleak	2015	2011	Aldea (%)
Zorpetze-ahalmena	% 12	% 4	226
Inbertsio indizea	% 6	% 2	268
Gastu arrunta biztanleko	638	629	2
Tributu bidezko diru-sarrerak biztanleko	399	330	21

Ikus daitekeen bezala, 2011tik 2015era zorpetze-ahalmenak gora egin du; tributu bidezko diru-sarreraren igoera askoz handiagoa da gastu arruntena baino, eta inbertsio-indizeak hobera egin du; horrek adierazten digu hobekuntza bat gertatu dela finantza-egoeran.

#### IV.2. AURREKONTU-EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA-IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK BETETZEA.

Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren bete-tzea aztertu dugu, haren hiru atal nagusiei dagokienez:

Aurrekontu-egonkortasunaren araua: emaitza positiboa da, ondoren adierazten dugun bezala:

Kontzeptua	2015
Aurrekontuko saldo ez finantzarioa	1.898.483
Diru-sarreren bidezko doikuntzak	-126.789
<b>Finantzaketa-ahalmena</b>	<b>1.771.694</b>

Gastuaren araua: 2015eko ekitaldiko gastu zenbakarria txikiagoa da 2014ko ekitaldiko baino, eta hari baimendutako aldearen tasa gehitu behar zaio, 1.084.859 eurokoa; horrenbestez, bete egiten da gastuaren araua:

Kontzeptua	2014	2015
Gastua (1. kapitulutik 7.era)	13.872.908	13.780.100
Zorpetze-interesengatiko doikuntzak	-9.013	-2.083
Funts finalistekin finantzatutako gastua	-1.259.705	-1.299.211
Inbertsioen besterentzea		-660.069
Gastu zenbakarria	12.604.190	11.818.737
BPGaren erreferentziako tasa	% 1,3	
2015eko gastu zenbakarria	12.768.045	
Diru-bilketaren igoera	135.551	
2015erako behin betiko gastu zenbakarria	12.903.595	

Finantza-iraunkortasunaren araua: 2015eko abenduaren 31ko zor bizia 1.359.250 eurokoa da. Zenbateko horrek 2015eko ekitaldiko diru-sarrera arrunten ehuneko 9 egiten du. Diru-sarrera horiek 15.144.734 eurokoak izan dira, eta zor biziaren muga, berriz, diru-sarrera arrunten ehuneko 110ekoa da.

Halaber, Udalak, oro har, betetzen ditu legedia indardunean hornitzaileei ordainketak egiteko ezarritako epeak.

#### IV.3. AURREKO TXOSTENETAN KONTUEN GANBERAK EMANDAKO GOMENDIOEN BETETZE-MAILA.

Ganbera honen 2014ko ekitaldiari buruzko aurreko txostenari dagokionez (2015eko abuztuaren argitaratua), honako aholku hauek bete gabe jarraitzen dute:

- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok barne-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende egon behar du.*
- *Udal-inbentarioa onestea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko al-ten eta baje jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabili-tateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena.*
- *Plantilla dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.*
- *Balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei bu-ruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikustea. Aipatu beha-rra daukagu 2014ko azaroan balorazio partzialeko ponentzia bat onetsi zela, Batzorde Mistoak egindako proposamen loteslearen arabera.*
- *Hirigintzako plangintza Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzea.*

## IV.4. ALDERDI OROKORRAK

- Udalaren ondasunen inbentarioa 1992koa da. Inbentario hori ez zen formalki onetsi, eta harezkerok ez da eguneratu.
- Ez da aurkitu nabarmentzeko moduko zenbatekoa duen 2015eko ekitaldiko fakturarik, 2016ko aurrekontuari egotzi zaionik.
- Erakunde autonomoen kudeaketa administratiboa eta kontabilitateari dagokiona modu deszentralizatuan egiten da, barne-kontrolerako udal organoek egintzen gaineko kontu-hartzaitza egin gabe. Horien jarduera "a posteriori" egiten da, eta aurrekontuaren eta haren kitapenaren espedientearen azterketan jartzen du batez ere arreta.
- Epe luzerako zorraren amortizazio-egutegia, 2015eko abenduaren 31n zegoen bezala, ondoko taula honetan agertzen dena da:

(eurotan)			
Ekitaldia	Amortizazioa	Ehunekoa	Metatutakoa (%)
2016	282.750	21	21
2017	282.750	21	42
2018	282.750	21	63
2019-2023	511.000	37	100
<b>Guztira</b>	<b>1.359.250</b>	<b>100</b>	

Udala zenbait prozedura judizialean sartuta dago. Aipagarriena da ofizial administraria izateko bi lanpostu, euskararen ezagutzarekin, oposizio bidez betetzeko deialdiari buruzko errekurtsioa. Administrazioarekiko auzien epaitegiak 2016ko martxoaren 4an demanda ezesten zuen epaia eman zuen. Nafarroako Auzitegi Nagusian apelazio errekurtsioa aurkeztu zen, eta 2016ko irailean demanda ezetsi egin du.

Gure gomendioak:

- *Udal-inbentarioa onestea, eta dokumentazioaren artxiboa kontrolatzeko eta inbentarioko al-ten eta bajen jarraipena egiteko sistema bat ezartzea, hura etengabe gaurkotzeko eta kontabilitateko ibilgetuarekin duen lotura bermatu eta bideratzeko aukera emanen duena.*
- *Betebeharrak edo eskubideak eragiten dituen erakunde autonomoen egintza orok barne-kontrol ekonomikoaren eta legezkoaren mende egon behar du.*
- *Udal programaren kudeaketan mendetasun bikoitza edukitzeak aukera emanen luke anto-lamendurako, koordinaziorako eta kontrolerako, kirolera bideratzen diren baliabide publikoak optimizatze aldera.*



## IV.5. LANGILEAK

Langileen gastu bateratua 7,2 milioi eurokoa da; hau da, 2015ean sortutako gastu guztien ehuneko 50,67 eta gastu arrunten ehuneko 55,04.

2014ko ekitaldiari dagokionez, kapitulu hau ehuneko 0,93 handitu da, honako xehetasunen arabera:

			(eurotan)
1. kapitulua	2015	2014	Aldea (%)
Goi-karguak	139.222	137.104	2
Kabineteetako aldi baterako langileak	145.024	139.479	4
Funtzionarioak	1.259.076	1.225.442	3
Lan-kontratudun finkoak	2.473.038	2.349.053	5
Aldi baterako lan-kontratudunak	837.702	828.897	1
Gizarte-zamak	2.340.863	2.448.319	-4
<b>1. kapitulua, guztira</b>	<b>7.194.925</b>	<b>7.128.293</b>	<b>1</b>

Barañaingo Udalaren Osoko Bilkurak 2014ko abenduaren 29an eman zion hasierako onespena plantilla organikoari; behin betiko onespena, berriz, 2015eko otsailaren 27an eman zion. Plantilla organikoak bai toki entitatearen beraren plantilla, bai haren erakunde autonomoena —Musika Eskola eta Lagunak Udal Zerbitzua— hartzen ditu.

Udalaren plantilla berekiak 116 lanpostu dauzka. Guztira, 31 lanpostu hutsik daude, hurrengo tauletan ikus daitekeen bezala:

	Lanpostuak	Aktiboa	Lanpostu hutsak
Izendapen askea	4	4	-
Funtzionarioak	56	27	29
Lan-kontratupekoak	56	54	2
<b>Guztira</b>	<b>116</b>	<b>85</b>	<b>31</b>

Udalaren berriazko langileak honako arloei daude atxikiak:

Arloak	Kopurua
Zerbitzu orokorrak	18
Polizia	26
Gai ekonomikoak eta giza baliabideak	9
Kultura eta euskara	7
Kirola	1
Gizarte ongizatea eta berdintasuna	7
Hirigintza eta ingurumena	22
Hezkuntza	26
<b>Guztira</b>	<b>116</b>

2015eko abenduaren 31n, Udalean eta haren erakunde autonomoetan 155 pertsonak egiten zuten lan, 2014an baino 1 gehiago. Hona xehetasunak:

Langileak	Udala	S.M. Lagunak	E.M. Luis Morondo	Guztira
Udaleko batzarkideak	2			2
Izendapen askea	4	1		5
Funtzionarioak	27			27
Lan-kontratudun finkoak	48	8	15	71
Aldi baterako lan-kontratudunak	26	6	4	36
Administrazio-kontratudunak	7			7
Gizarte enplegu babestua	7			7
<b>Guztira</b>	<b>121</b>	<b>15</b>	<b>19</b>	<b>155</b>

Langile-gastuen lagin bat aztertu ondoren, gastu horiek, oro har, ondo kontabilizatuta daudela ondorioztatzen da, eta ordainsariak betetako lanpostuetarako eta lan-harremanaren kategoriarako erabakitakoak direla eta egindako atxikipenak zuzenak direla.

Langileen kudeaketa kanpoko laguntzarekin egiten da erakunde autonomoen kasuan; ez, ordea, Udalaren kasuan. 2015eko ekitaldian soldata-igoerarik ez dela izan ikusi da orobat.

*Gomendatzen dugu plantillan dauden lanpostuen eta egiaz betetzen diren lanpostuen arteko erlazioa aztertzea, plantilla organikoa egiazko premietara egokitzen den egiaztatzeko.*

## IV.6. ONDASUN ARRUNTETAKO ETA ZERBITZUETAKO GASTUAK

Ondasun arruntetan eta zerbitzuetan egindako gastuek 5 milioi euro egin dute 2015ean, guztira; kopuru hori ekitaldian aitortutako gastuen ehuneko 35 eta eragiketa arrunten gastuen ehuneko 38 da. 2014. urtearen aldean, ehuneko 2 murriztu dira.

Kapitulu honetako gastuen betetze-maila, eta 2014ko ekitaldian izan zenarekiko alderaketa ondoko taula honetan adierazten da:

(eurotan)			
2. kapitulua	2015	2014	Aldea (%)
Errentamenduak	28.010	31.021	-10
Konponketak, mantentze-lanak eta kontserbazioa	1.058.734	1.156.678	-8
Inbentariatu ezin den materiala	62.796	59.674	5
Hornidurak	1.174.412	1.123.509	5
Komunikazioak	44.727	50.359	-11
Garraioak eta pleitak	14.698	42.110	-65
Aseguru-primak	66.394	78.670	-16
Zenbait gastu	403.901	386.469	5
Beste enpresa batzuek egindako lanak	2.100.954	2.112.226	-1
Zerbitzua dela-eta emandako kalte-ordainak	2.968	4.415	-33
<b>Guztira</b>	<b>4.957.594</b>	<b>5.045.132</b>	<b>-2</b>

2015ean lizitatutako kontratazio-espeditente batzuk aztertu ditugu, kapitulu horri "Hornidura eta Laguntza" atalean egotzitakoak (eurotan emandako zenbatekoak dira, BEZik gabe):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa
Haur hezkuntzako ikastetxeetarako prestatutako elikagaien zerbitzua	Laguntza	Irekia	69.604	3	68.427
Esku-hartze sozialeko programa, Baragazte eta Baragazteren kudeaketa jardura osagarriak	Laguntza	Irekia	191.928	1	191.537
Ikastetxeetako eta haur-eskoletako garbiketako zerbitzua	Laguntza	Irekia	617.100	7	538.117
Liburutegiaren garbiketa	Laguntza	Irekia	26.257	1	26.215
Barañaingo zenbait eraikin eta bulego garbitzeko lanak	Laguntza	Irekia	62.557	3	58.283
Haur parkeak	Hornidura	Irekia	108.840	2	95.019
Osoko Bilkuren aretoko, poliziako, atletismo pistetako eta kiroldegiko zainketa-kamerak	Hornidura	Negoziatua	17.618	2	17.447

Azterketa horren eta kapitulu honetan erregistratutako gastuen lagin bati buruz egindako azterketaren ondorioz, gastuak justifikatuta daudela, behar bezala kontabilizatu direla eta egokiro izapidetu direla egiaztatu da, eta ez dela aplikatzekoa den araudiaren urratze larriarik ikusi; halere, ikusi dugu enpresa batzuen aldeko hornidura- eta zerbitzu-kontratu batzuek gehieneko epea gainditzen dutela, eta, horrenbeste, berriz lizitatu behar zirela.

*Gomendatzen dugu prozedura berriak hastea kontratazio araudian ezarritako iraupen-muga gainditzen denean.*

## IV.7. TRANSFERENTZIEN ONDORIOZKO GASTUAK.

Transferentzia arruntengatiko gastuak (erakunde autonomoenak kenduta, 4. orrialdean azalzen baitira) 917.292 eurokoak izan direla. Ekitaldiko gastu guztien ehuneko 6 egiten dute, eta eragiketa arrunten ehuneko 7.

Honakoa da transferentzia arruntengatiko 2014ko eta 2015eko gastuak alderatzeko taula, artikuluz artikulukoa:

4. kapitulua	(eurotan)			
	2015	2014	2015-2014 aldea	2015-2014 aldea (%)
Entitatearen enpresei	83.719	70.000	13.719	20
Foru Komunitateari	60.640	57.783	2.858	5
Toki entitateei	280.028	370.311	-90.284	-24
Kirol eskola eta elkarteei	137.880	131.385	6.495	5
Enpresa pribatuei	1.925	2.181	-256	-12
Familiei eta irabazi asmorik gabeko erakunde- deei	353.100	313.897	39.203	12
<b>Guztira</b>	<b>917.292</b>	<b>945.557</b>	<b>-28.265</b>	<b>-3</b>

2014koen aldean, gastu horiek ehuneko 2,99 jaitsi dira. Nagusiki, toki entitateentzako diru-laguntzen kontu-saila jaitsi da, eskualdeko garraioaren finantzaketa gutxitzearen ondorioz.

Honakoak dira 2015ean egindako transferentzia garrantzitsuenak:

Kontzeptua	2015	2014	2015-2014 aldea	2015-2014 aldea (%)
Mankomunitatea (Garraioa)	279.628	369.911	-90.282	-24
Kirol-elkartek (ik. g. Kirol-klubak)	104.000	100.000	4.000	4
Hitzarmena Auditorioa Fundazioarekin	80.000	70.000	10.000	14
Ibai parkea	60.641	57.783	2.858	5
Kulturaren arlorako lankidetzak hitzarmenak	37.058	39.253	-2.195	-6
Errege-kabalgatarako eta Olentzerorako diru-laguntza	38.301	38.394	-93	-0
Infolocal proiekturako ekarpena	34.258	34.258	0	0
Udalaren kirol eskoletarako diru-laguntza	33.880	31.385	2.495	8
<b>Guztira</b>	<b>667.765</b>	<b>740.984</b>	<b>-73.219</b>	<b>-10</b>

Kirolaren kudeaketa Udalak berak eta Lagunak Udal Zerbitzuak partekatzen dute. Kirolaren kudeaketa bikoitza izateak berarekin dakar beti ez egotea argi definiturik kirol eskolen edo jardueren finantzaketa, ez eta zein gastu finantzatu beharko liritekeen funts publikoekin; eta oroitidazkian aipatzen den bezala, kirol sekzioen finantzaketa oso askotarikoa da.

Egindako berrikuspenetik ondorioztatzen da Udalak indarrean dagoen araudia behar bezala bete duela.

*Gomendatzen dugu kirol jardueren finantzaketarako plan bat egitea, non helburuak, eraginak, irizpideak, aurreikustekoak diren kostuak eta baliabideen aurreikuspena jasoko diren; horrek aukera emanen du kirolaren kudeaketan kontrol eta koordinazio handiagoak izateko.*

## IV.8. INBERTSIOAK

2015eko ekitaldirako behin betiko aurrekontuan aurreikusitako inbertsioak 1,8 milioi eurokoak dira. Kontu-sail horretatik ehuneko 42 bete da, eta 0,8 milioiko zenbatekora iritsi da; hau da, ekitaldiko aitortutako betebeharrak guztien ehuneko 5,56. Hauxe da alde handienak gertatu diren kapitulua; izan ere, 2014an 1,7 milioi euro izatetik 2015ean 0,8 milioi izatera iragan da.

Honakoa izan da azken lau ekitaldietan VI. kapituluan aitortutako betebeharrak garbieraren bilakaera:

Urtea	Aitortutako betebeharrak, VI. kapitulua
2010	2.880.496
2011	227.700
2013	438.990
2014	1.700.666
2015	789.996

Horrez gainera, kapitulu honi atxiki zaizkion kontratazio-espeditente hauek aztertu ditugu (zenbatekoak eurotan, BEZa barne):

Deskribapena	Kontratu mota	Esleipen-prozedura	Lizitazioaren zenbatekoa	Eskaintzak	Esleipenaren zenbatekoa	2015ean betetakoa
Zoladura sintetikoa eta etxeko osagarriak atletismo pistetan	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	135.256	3	128.899	134.924
Lagunak Udal Sozietateko kirol-degirako zoladura sintetikoa	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	62.994	2	59.557	59.557
Udaltzaingoaren Alorraren barruko aldea eta Erraldioen Konpartsaren lokala eraberritzea	Obra	Publizitaterik gabe negoziatua, eskaintza onenarentzat	87.467	3	81.763	87.840

Aurreko berrikuspena eginda eta gastuen lagin bat aztertu ondoren, espeditenteak izapidez zean dagokien kontratazio-araudia, oro har, bete egiten dela ikusi da.

Hala eta guztiz ere, desbideratzeak antzeman dira esleipen-balioen eta aztertutako bi kontratuetan ordaindutako likidazioen artean; dena den, Kontratu Publikoei buruzko ekainaren 9ko 6/2006 Foru Legeko 106.2 artikuluan ezarritako legezko esparruaren barruan daude.

Bi kasuetan esleipen-prezioarekiko ehuneko 10etik beherako desbideratzeak dira, eta aztertutako bi espeditenteetan agiri bidez jasota ikusi dugu arauan eskatutako izapideak jarraitu egin zirela.

## IV.9. AURREKONTUKO DIRU-SARRERAK

2015eko ekitaldian aitortutako eskubide bateratuak 16 milioioak izan dira; ia guztiak eragiketa arruntengatiko diru-sarrerak izan dira.

Betetze-maila ehuneko 95ekoa da. Nabarmentzekoak dira zuzeneko zergen eta transferentzia arrunten kapituluak, ehuneko 100etik gorako betetzeak dituztenak.

Zergen bidezko diru-sarrerak —8 milioi— eta transferentzia arruntek —7 milioi— diru-sarreren ehuneko 95 egiten dute.

2014ko ekitaldiaren aldean, aitortutako eskubideek ehuneko 14 egin dute behera. Hona xehaketa:

(eurotan)			
Diru-sarreren kapitulua	DRN 2015	DRN 2014	2015/2014 aldea (%)
1. Zuzeneko zergak	4.487.451	3.843.671	17
2. Zeharkako zergak	169.962	235.787	-28
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	3.508.461	3.413.486	3
4. Transferentzia arruntak	6.806.515	6.785.403	
5. Ondare bidezko diru-sarrerak	172.345	4.163.275	-96
<b>Diru-sarrera arruntak (1. kapitulutik 5.era)</b>	<b>15.144.734</b>	<b>18.441.622</b>	<b>-18</b>
6. Inbertsio errealeen besterentzea	660.069	0	
7. Kapital-transferentziak	10.775	10.775	
8. Finantza-aktiboak	0	0	
9. Pasibo finantzarioak	0	0	
<b>Kapitaleko diru-sarrerak eta finantza-eragiketak (6.etik 9.era)</b>	<b>670.843</b>	<b>10.775</b>	<b>6126</b>
<b>Guztira</b>	<b>15.815.577</b>	<b>18.452.397</b>	<b>-14</b>

Jaitsiera nagusia ondarezko diru-sarreren kapituluaren gertatzen da; izan ere, 2014ko ekitaldian merkataritza zentro bat instalatzearekin lotutako eragiketarik heldutako eskubidea jasozen.

Ondorengo taulan udal-zerga bakoitzak aitortutako eskubideen bilakaera erakusten da:

(eurotan)			
Zuzeneko eta zeharkako zergak bereizten dira.	DRN 2015	DRN 2014	2015/2014 aldea (%)
Lurraren kontribuzioa	2.399.319	2.263.769	6
Ibilgailuak	1.056.292	1.014.473	4
Lurren balio-gehikuntza	813.884	351.382	132
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	217.956	214.047	2
EIOZa	169.962	235.787	-28
<b>Guztira</b>	<b>4.657.413</b>	<b>4.079.458</b>	<b>14</b>

Zergak arinki egin dute gora aurreko ekitaldikoarekiko. Hala eta guztiz ere, nabarmentzekoa da lurren balioaren igoeraren gaineko zergaren aldaketa, lur-eskualdatzeek gora egitearen ondorioz.

Udalak aplikatutako tasak Toki Ogasunei buruzko 2/95 Foru Legeak jasotzen duen sortako tarte ertain/altuan kokatzen dira, hurrengo taulan ikus daitekeen bezala:

Kontzeptua	2/1995 Foru Legearen tasak	Udalak aplikatutako tasak
Lurraren kontribuzioa	0,10etik 0,50era	0,289
Jarduera ekonomikoen gaineko zerga	1etik 1,4ra	1,4
Lurren balioaren gaineko zerga		
Gaurkotze-koefizientea	2 eta 3,3 bitarte	3
Zerga-tasa	8tik 20ra	11,55
Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga (EIOZ)	2 eta 5 bitarte	5

- Balorazio-ponentziaren azkeneko eguneratzea 2.000. urtean onartu zen, 2001etik aurrera indarrean sartzeko; beraz, askogatik gainditu da azaroaren 21eko 12/2006 Foru Legeak, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzkoak balorazio-ponentzia derrigor eguneratzeko jartzen duen bost urteko epea. Hala eta guztiz ere, 2014ko azaroan balorazio partzialeko ponentzia bat onetsi zela, Batzorde Mistoak egindako proposamen loteslearen arabera.

2016ko otsailean, Udalak zergak kontrolatzeko plan bat onetsi du 2016-2018 urteetarako.

Diru-sarreraren aurrekontu bateratuko kontu-sailen lagin baten gainean azterketa egin ondoren, aplikatutako tasak oro har zuzen aplikatu eta kontabilizatu direla ondorioztatu dugu.

*Gomendatzen dugu balorazio-ponentzia Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta Katastroei buruzko azaroaren 1eko 12/2006 Foru Legearen aurreikuspenen arabera berrikus-tea.*

#### IV.10. HIRIGINTZA

Barañaingo Udalak bere baliabideen eta besterenen bitartez egiten ditu hirigintzako lanak. Honako pertsona hauek daude atxikita Hirigintza Alorrari:

- Bi administrari.
- Udaleko obra-lantaldearen arduradun bat.
- 2015ean Udalak hirigintza-gaietarako kanpoko aholkularitza bat izan du, era honetan osatua:
  - Arkitektura enpresa bat: haren zerbitzuetarako 2015eko ekitaldian 24.300 euroko betebeharrak aitortu ziren; halaber, proiektuak idazteagatik eta obren zuzendaritzekin lotutako zerbitzu gehigarriengatik 14.430 euroko betebeharrak aitortu ziren.
  - Ingeniaritza enpresa bat: haren zerbitzuengatik 2015eko ekitaldian 7.439 euroko betebeharrak aitortu ziren, eta beste 7.375 euro zerbitzu gehigarriengatik.

Barañaingo Udaleko hirigintza-antolamenduko plan orokorra (HAPO) Ingurumen, Lurraldearen Antolamendu eta Etxebizitza kontseilariaren martxoaren 7ko 137/1991 Foru Aginduaren bidez onetsi zen. Plangintza hori ia-ia osorik beteta dago.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legeak hiru urteko epea ezarri zuen, 2006ko apirilera artekoa, indarreko plangintzak homologatu eta egokitzeko. Gaur egun arte, Udalak ez du abiatu Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legean ezarritakora egokitzeko izapiderik.

Lurzoruaren Udal Ondareari dagokionez, Barañaingo Udalak, 2010eko otsailaren 25ean, inbentarioaren ezarpena eta Lurzoruaren udal Ondarearen Udal Erregistroaren sorrera erabaki zituen.

Une honetan, erregistroan dagoen finka bakarra 215 eta 213 m<sup>2</sup>-ko bi finkek osatzen dutena da — hurrenez hurren, San Kristobal Plazako 1. eta 2. zenbakietan daude—: "maisumaistren etxeak" deitutakoak dira. Bi finka horiek segregazio bidez lortu ziren, eta 2013ko irailaren 27an Osoko Bilkurak hartutako erabakiaren bidez, babes publikoko araubideren bati lotutako etxebizitzak eraikitze bideratu ziren.

2013ko irailaren 27ko erabaki horretan bertan aitortu zen aipatutako lurzatia besterengarria zela, eta Lurzoruaren Udal Ondarean sartu zen.

Hirigintza-hitzarmenen erregistroak hiru jasotzen ditu: bat 2006koa, beste bat 2008koa eta hirugarrena 2012koa; 2013koaren aldean, ez da aldaketarik izan.

2015eko ekitaldian zehar, ez da hirigintza-jarduketarik egin; azken aldaketak 2013ko ekitaldian egindakoak dira.

Hona gomendatzen duguna:

- *Hirigintzako plangintza Lurraldearen Antolamendu eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen zehaztapenen arabera egokitzea.*
- *Lurzoruaren Udal Ondarea Udalaren gainerako ondasunetatik bereizirik kudeatzea, lursailei eta eskudiruari dagozkien sarrerak eta irteerak bereizita erregistratuz.*

#### VI.11. BARAÑAIN AUDITORIOA FUNDAZIOA.

2003ko urtarrilaren 17an, Barañaingo Udalak "Barañain Auditorioa Fundazioa" eratu eta bere babespean hartu zuen. Fundazio honen xedea Barañaingo arte eszenikoen zentroa, Udalaren titulartasuna duena, kudeatu eta administratzea da.

I. eranskinean, aldeko iritzia duten urteko kontu auditatuak gehitu dira. Gainera, analisi-txosten bat egin da, ikuskizun bakoitzaren emaitza eta egitura-gastuek egindako jarduera bakoitzean duen eragina zehazteko.

2015eko abenduaren 31n, Fundazioaren plantilla osatzen zuten langileak 6 ziren guztira; ez da, beraz, aurreko ekitaldiaren aldean alderik izan.

Fundazioak, 2015eko ekitaldian, 638.402 euroko diru-sarrerak izan zituen, eta 635.806 euroko gastuak egin zituen; beraz, 2.595 euroko superabita izan zuen. 2014an, diru-sarrerak 616.522 eurokoak izan dira eta gastuak, berriz, 617.662 eurokoak; 1.140 euroko defizita izan da, beraz.

Udalak Barañain Auditorioa Fundazioari 2015erako eginiko ekarpena, aurrekontuko kontu-sail izendun batean aurreikusia, 2015eko urtarrilaren 26an formalizatu zen, hitzarmen-programa baten bidez, eta 80.000 eurokoa izan zen. Nafarroako Gobernuak, halaber, 30.671 euroko diru-laguntza eman zuen, aurreko ekitaldikoaren ildotik.

2015eko abenduaren 31n, Fundazioaren kontabilitate-ondare garbia positiboa zen, 15.655 euroko zenbatekoarekin (2014ko abenduaren 31n ere positiboa zen, 13.059 eurokoa).

*Gomendatzen dugu Fundazioaren urteko kontuak Udalaren kontu orokorrari eranstea, eranskin gisa gutxienez.*

Txosten hau eman da araudi indardunak ezarritako izapideak bete ondoren, Jesús Muruzabal Lerga auditore jaunak proposatuta, bera izan baita lan honen arduraduna.

Iruñean, 2016ko azaroaren 23an

Lehendakaria, Asunción Olaechea Estanga